



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/01/17

Aldundiak lurren bankuko programearen inguruko "gogoetea" zabaldu dau, 2016ko deialdian lote bakarria esleitu ostean

Elena Unzueta Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako diputatu andreak gaur goizean, Talde Mistoak eskatuta, Batzar Nagusietan izan dauen agerraldian iragarri dauenez, Nekazaritzako Lurzoruaren Fondoaren edo lurren bankuaren jarraipenaren inguruko “gogoetarako” epealdia zabalduko dau bere sailak. Foru Aldundiak 2011n jarri eban martxan ekimena, lehen sektorearen gazteagotzea bultzatzeko. Foru Aldundiak zazpi lur lote jarri ebazan gazte baserritarren esku 2016an egindako azkenengo deialdian, eta horreetako bat baino ez zan azkenean esleitu, hasieran aurkeztu ziran eskari biren artean.

Azkenengo bost urteetan, Aldundiak “47 lur lote” banatu ditu, gehienak “baratzezaintza ekologikoko ustiapen” barriak martxan jarteko. Igaz izandako eskari urria ikusita, Aldundiko arduradunek gogoetarako epealdia hasi dabe, “eredu horregaz jarraitzeko edo aldatetari ekiteko” erabagiteko. Bizkaiko Aldundiaren planen artean ez dago programa hori alde batera iztea, “gazteak sektorerara gerturatzen jarraitzen dabelako”, Unzuetak adierazo dauenez. “Ez daukagu bere egunean onetsi zan dekretua baztertzeko asmorik”, eta gitxiago oraindino Aldundiak “Gazterien urtea” izendau dauen urte honetan.

Teknikarien aldetik jasotako datuakaz programea ebaluau aurretik, Aldundiak fitxea mobiduko dauela aurreratu dau Unzuetak. Aurtongo deialdia “udabarrira” aurreratuko da, eta sektoreko alkarteen inplikazio handiagoa bilatuko da, eta baita dekretua norbanakoen, udalen eta bestelango erakundeen artean zabaltzea be.

Unzuetak, bere eretziz, 2016an izandako emoitzen atzean dagozan zergaitien “lehenengo hurbilketea” egin dau. Holan, Aldundiko arduradunaren ustetan, “behar bada”, lurren erabileretako batzuk ez ziran eskarierara egokitzen, eta sektorean “joera aldatetea dauela emoten dau”, jaubetzan oinarritutako eredurantz, eta ez horrenbeste nekazaritzako alokairuan oinarritutakorantz.

Batzarretako taldeen eretziz, “guztiz beharrezkoa” da ekimen publikoa sektorea barriztetan jarraitzeko, baserritar gazteak sartuta, gure gizarteak nagusien eskuetan izten dauelako nekazaritzeagaz erlazioautako mundua. “Asko itxaroten zan eta asmo handiak eukazan” dekretua izan arren, Mikel Kormenzana EH Bilduko batzordekideak, eskinitako loteak ustiapen jakin batzuetarako “itxita” ez egotea eskatu dau, gazteen sarrerea ez mugatzeko. Eskaria egin deutso Aldundiari, nekazaritzako lur-sailak “eskuratzea” bultzatu daian, eta une honetan erabilten diran lurak nekazaritzarako berreskuratu daizan, baita jaubetza kentzearen bitartez be, beharrezkoa bada, eta baita bitartekaritzako beharra egin daiten, lurren transmisinoa egin daiten nagusiengandik gazteengana.

EL KARPINEN ETORKIZUNA



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Elena Unzueta Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako diputatu andrea, Podemos Bizkaia, PP eta Talde Mistoaren hiru agerraldi eskariri erantzuteko be etorri da Batzarretara. Talde horreek El Karpinen (Karrantza) dagon fauna basatia jasoteko zentroko instalazioen egoera ekonomikoaren eta etorkizunaren inguruko datuak eskatzen ebezan. Oposizino taldeek “preminaz” inpliketako eskatu deutsie Aldundiari leku horren jarraipena bermatzeko. Dana dala, Foru Aldundiak erantzun dauenez, parkearen etorkizuna ez dago arriskuan.

Proposamena aurkeztu daben taldeek adierazo dabenez, urtero “50.000 pertsona baino gehiago” jasoten dituan parkearen jaubea dan Enkarterriko Mankomunidadeak (Artzentales, Galdames, Gordexola, Güeñes, Karrantza, Lanestosa, Sopuerta, Turtzioz eta Zalla udalerriek osatutakoa), parkea kudeatzen eban enpresak proiektua bertan behera itzi behar ebalan esan eban orain denpora gitxi, ez eukalako bideragarritasun ekonomikorik. Hiru talde horreek –EH Bilduk be eurakaz bat egin dau–, parkeari eusteko “borondate politikoa” eskatu deutsie Foru Aldundiari, ingurumenaren aurreko errespetua zabaltzeko egiten dauen beharrarengaitik, eskualdera turismoa erakarten dauen lekua dalako eta bertan behar egiten dabenen enpleguari eutsi ahal izateko, animaliak jasoteko eta osatzeko lekua izateaz aparte.

Foru Aldundia koalizioan zuzentzen daben EAJ-PNV eta PSE-EE alderdietatik, parkearen jaubea dan Mankomunidadeak hartzen dituan erabagiak errespetau behar dirala azpimarratu dabe, eta parkearen kudeaketarako beste lehiaketa publiko bat deitzea balorau dabe. Lehiaketa hori iragarrita dago daborduko, eta “parkeari jarraipena emongo deutsion eta enpleguari eustea posible egingo dauen beste kontratu bat bermatuko dau”. Oposizinoak “erantzukizun faltea” erakutsi dauela esan dabe, Aldundiari “erakundeen aldetik baztertuta itzi izana” leporatu deutsielako, azkenengo urteetan hainbat izan diralako instalazio horreei eustera bideratu diran partidak. María Presa jeltzaleak esan dauenez, parkeak “333.985 euro” jaso ditu Aldundiaren aldetik, “13.000 euro” Basalan Foru enpresatik eta “41.266 euro” Enkarterriko Mankomunidadeatik bertatik. Diru kopuru horri, azken erakunde horrek “urtero bideratzen dituan 10.000 euroak” gehitu behar jakoz.

Diputatu andreak, bere aldetik, Foru Gobernua eusten daben talde bien erespeide berbera agertu dau. Jaubea danez, “jardun behar dauena eskualdeko Mankomunidadea da, eta Aldunditik kudeaketa hori errespetetan dogu”, adierazo dau, eta, aldi berean, “zuhurtasunagaz eta kontu handiz ibilteko” eskatu dau, “arintasunez berba egin barik”, El Karpinen arazoa ekonomikoa dala esaten daben informazioak ontzat hartuz. Mankomunidadeak esan deuskunez, “beharbada ez da hori arazoa”.

PANPAKO LUMAGANDORRA, ZEBRA MUSKUILUA ETA BISOI EUROPARRA

Unzuetak bi espezie inbaditzailerin hedapenaren inguruko azken barriak bideratu deutsez batzarretako taldeei, Panpako lumagandorrarena eta Zebra muskuiluarena, hain zuzen be, eta baita bisoi europarraren bizi iraupenari jagokon informazioa be. Hiru gai horreek zirala eta barriro be Aldundiko arduradunen baten agerraldia eskatu dauen Arturo Aldecoa Talde Mistoko ordezkariari argi itzi deutsanez, ez dago barrikuntzarik, Foru Gobernuko beste ordezkari batzuek esandakoaren aurrean.

Holan, Panpako lumagandorraren presentzia nahiko “txikia” da Bizkaian, ez dalako lurraldearen “%10era” ailegetan. Landare inbaditzaile hori “geure artean geratuko dala” onartu arren, Aldundiak beharrean jarraitzen dauela adierazo dau Unzuetak, “paisaiaren aldetik balio handia daben lekuetatik” kentzeko, Barbadun errekatik, besteak beste. Leku horretan “50.000 landare



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

baino gehiago” kendu dira. Gehiago ikusten da “errepideen eta trenbideen, gune hidraulikoen, gaseoduktoen eta hariteria elektrikoen ondoan, amaitu barik dagozan urbanizazioetan edo hondakindegietan”.

Zebra muskuiluari jagokonez, Unzuetak aurreko agerraldi batean eskini zan informazinora jo dau. Agerraldi haretan, karguan bere aurretik egon zan diputatuak, muskuilu hori Urrunagako, Undurragako eta Mendikosoloko urtegieta eta Arratia, Ibaizabal eta Nerbioi erreketan dagola esan eban. Arazo horren kudeaketeagaz URA Agentzia arduratzen da, Aldundiak parte hartzen dauen Jarraipeneko Mahaiaren bitartez eta, bere txostenak kontuan izanda, “momentuz” zebra muskuiluak ez dau “kalterik” eragin azpiegitura hidraulikoetan.

Bizirik irauteko gatzago dauka bisoi europarrak, beste espezie inbaditzaile baten, bisoi amerikararen, aurrean lehia hilkorrean ari da eta. Emoten dauenez, animalia horrek, bisoi amerikarrak, habitataren gero eta egoera txarragoagaz batera, ugaztun autoktonoaren “jatsiera nabarmena” eragin dau “15 urtetan”. Unzuetak adierazo dauenez, Foru Aldundiak, animalia horren populazioa hobetzera bideratuta dagon eta EBk finantzetan dauen LIFE (2014-2018) programan hartzen dau parte. Programaren helburua bisoi europarraren jarraipena egitea eta espezie amerikarra desagertu arazotea da, tranpetan oinarritutako teknikak erabiliz.

EZEZKOA ARTAZAKO PARKEAN HOBEKUNTZAK EGITEARI

Gaurko saioa, Podemos Bizkaia taldeak aurkeztu dauen arauz besteko proposamenaren eztabaideagaz amaitu da. Proposamen horretan, 2016ko udan Bizkaiko Batzarretako Eskarretarako eta Herritarrakazko Hartu-emonen Batzarretik igaro ziran Leioako biztanleek, Artaza parkearen inguruan hainbat jarduketa gauzatzeko eskaria egin ebela jasoten zan. Talde moreak, Aldundia hainbat hobekuntza bere gain hartzeko ekimena aurkeztu dau: hesi bat bukatzea, umeez eta txakurrek ez daien errepidera urten; jarleku eta paperontzi gehiago instalatea; eta iturri baten hustubidea konpontzea.

Oposizino talde guztien aldeko botoa jaso dauen ekimena ez dabe onartu EAJ-PNV eta PSE-EE taldeetako ordezkariak. Talde biek esan dabenez, Artazako parkea hiru erakunderen esku dago –Eusko Jaurlaritzan, Foru Aldundia eta Udala– eta horreek barrutiaren parte bat kudeatzen dabe. Aldundiak “100.000 euro baino gehiago” gastetan ditu urtero parkearen mantentze-lanetan, eta planteau diran proposamen batzuk “beteta dagoz daborduko”, paperontziei, jarlekuei edo komun publikoei jagokezanak, besteak beste. Gainera, teknikarien eretziz, parkean ez dago hesi bat egitea eskatzen daben “arriskurik”. Ekimena ez da onartu, aldeko 7 boto eta kontrako 8 jaso ditualako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
17/01/2017

La Diputación abre una "reflexión" sobre el programa del banco de tierras tras adjudicar solo un lote en la convocatoria de 2016

La diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, ha anunciado esta mañana en una comparecencia en las Juntas Generales, solicitada por el grupo Mixto, que su departamento va a abrir un periodo de "reflexión" sobre la continuidad, en los términos actuales, del Fondo de Suelo Agrario o banco de tierras, una iniciativa que la Diputación puso en marcha en el año 2011 para facilitar el rejuvenecimiento del sector primario. La Institución foral puso a disposición de jóvenes baserritaras siete lotes de suelo en su última convocatoria realizada en 2016, y sólo uno de ellos fue adjudicado finalmente, entre las dos solicitudes presentadas inicialmente.

En el último lustro, la Diputación ha entregado un total de "47 lotes" de terreno en su gran mayoría para iniciar nuevas "explotaciones de horticultura ecológica". La escasa demanda del año pasado ha empujado a los responsables forales a iniciar un periodo de reflexión para contemplar la necesidad "de continuar con este modelo o dar un nuevo viraje al mismo". Entre los planes del Ejecutivo vizcaíno no está eliminar este programa ya que el sector "continúa recibiendo la incorporación de jóvenes", según Unzueta. "No tenemos la intención de abandonar" el decreto aprobado en su momento, más si cabe durante un ejercicio declarado por la Diputación como "el año de la juventud".

Antes de evaluar el programa con los datos recabados por los técnicos, Unzueta ha adelantado que la Diputación moverá ficha. La convocatoria de este año se adelantará "a primavera", y se buscará una mayor implicación de las asociaciones del sector, así como mejorar la divulgación del decreto entre particulares, ayuntamientos y diversas entidades.

Unzueta ha realizado una "primera aproximación" de los motivos que, a su juicio, están detrás de los resultados obtenidos en 2016. Así, la responsable foral se inclina "quizás" porque algunos usos de terrenos no respondían a las demandas y porque "parece ser que hay un cambio de tendencia" en el sector hacia un modelo basado en la propiedad y no tanto en el alquiler de suelo agrario.

Los grupos junteros han considerado "vital" la iniciativa pública para seguir renovando el sector con la entrada de jóvenes baserritarras, un mal de nuestra sociedad que deja en manos de las personas mayores la mayoría de explotaciones agrarias. Pese a ser un decreto "esperado y ambicioso", el juntero de EH Bildu, Mikel Kormenzana, ha pedido que los lotes ofertados no sean "cerrados" a determinadas explotaciones, para que no se limite la entrada de jóvenes. Ha instado también a la Diputación a que se estimule la "adquisición" de parcelas agrarias y se recuperen tierras para el cultivo que están en desuso, incluso mediante la expropiación, así como a que se medie para que se produzca una transmisión de tierra de mayores a jóvenes.

FUTURO DEL KARPIN



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

La diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural de Bizkaia ha comparecido también para responder a tres iniciativas de comparecencia del grupo Mixto, PP y Podemos Bizkaia, que reclamaban datos sobre la situación económica y el futuro de las instalaciones del centro de acogida de fauna silvestre El Karpin (Karrantza). Los grupos de la oposición han reclamado a la Diputación Foral que se implique “urgentemente” para garantizar la continuidad del recinto, aunque el Gobierno foral ha respondido que no está en riesgo su futuro.

Los proponentes han señalado que la Mancomunidad de Las Encartaciones, (compuesta por los municipios de Artzentales, Galdames, Gordexola, Gueñes, Karrantza, Lanestosa, Sopuerta, Turtzioz y Zalla) propietaria del parque, por el que anualmente pasan “más de 50.000 personas”, informó recientemente de que la empresa que lo gestionaba abandonaba el proyecto por falta de viabilidad económica. Estos tres grupos, a los que se ha sumado también EH Bildu, han reclamado a la Diputación Foral “voluntad política” para mantenerlo por la labor que desarrolla en la difusión del respeto al medio ambiente, por suponer un foco de atracción turístico para la comarca y por mantener el empleo de quienes trabajan allí, además de servir de centro de recuperación de animales.

Desde PNV y PSE, que dirigen el ejecutivo foral en coalición, han destacado el respeto a las decisiones de la Mancomunidad propietaria del parque y han valorado la convocatoria de un concurso público para su gestión, “que garantizará un nuevo contrato que dará continuidad al parque y supondrá el mantenimiento del empleo”. Han reprochado “falta de responsabilidad” a la oposición por haber acusado a la Diputación de “abandono institucional” ya que, en los últimos años, han sido varias las partidas destinadas a mantener esas instalaciones. Según la jeltzale María Presa el centro ha recibido “333.985 euros” de la Diputación, “13.000 euros” de la empresa foral Basalan y “41.266 euros” de la propia Mancomunidad de Enkarterri, a lo que habría que sumar otros “10.000 euros anuales” de esta última entidad.

Por su parte, la diputada foral ha mantenido el mismo criterio que los dos partidos que sustentan al Gobierno foral. Como propietaria “quien tiene que actuar es la Mancomunidad de la comarca y desde la Diputación respetamos su gestión”, ha señalado, al tiempo que ha apelado “a la prudencia y la cautela para evitar hacer afirmaciones con ligereza” al dar validez a las informaciones que hablan de que el problema de El Karpin es económico. La Mancomunidad nos ha trasladado que “a lo mejor no es ese el problema”.

PLUMERO DE LA PAMPA, MEJILLÓN CEBRA Y VISÓN EUROPEO

Unzueta ha trasladado a los grupos junteros las últimas novedades respecto a la extensión de dos especies invasoras como son el plumero de la pampa y el mejillón cebra, y la supervivencia del visón europeo. En su intervención ha dejado claro al representante del grupo Mixto Arturo Aldecoa, que pedía nuevamente la presencia de algún responsable de la Diputación por estos tres asuntos, que no existen novedades con respecto a lo manifestado por otros representantes del Gobierno foral.

Así, la presencia del plumero de la Pampa es “reducido” en Bizkaia, ya que “no alcanza el 10%” del territorio. Pese a reconocer que esta planta invasora se “va a quedar entre nosotros”, Unzueta ha señalado que la Diputación sigue trabajando en eliminar su presencia “en zonas de alto valor paisajístico”, como es el caso del río Barbadún donde se han suprimido “más de 50.000



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

plantas”. Su talle es más visible “junto a redes viarias y ferroviarias, zonas hidráulicas, gaseoductos, tendidos eléctricos, urbanizaciones sin terminar o vertederos”.

En cuanto al mejillón cebra, Unzueta se ha referido a la información que ya se ofreció en una comparecencia anterior en la que la diputada que le precedió en el cargo sostuvo que este molusco de aguas dulces se encuentra en los pantanos de Urrunaga, Undurruga y Mendikosolo, y en los ríos Arratia, Ibaizabal y Nerbioi. La gestión de este problema la realiza la Agencia URA a través de la Mesa de Seguimiento en la que la Diputación está presente y, según sus informes, “de momento” el mejillón cebra no ha causado “perjuicios” en las infraestructuras hidráulicas.

Más difícil para la supervivencia lo tiene el visón europeo que está siendo sometido a una competición mortífera por parte de otra especie invasora: el visón americano. Al parecer este animal, unido a la degradación del hábitat, ha provocado, “en 15 años”, un “drástico declive” del mamífero autóctono. Unzueta ha señalado que la Diputación participa en el programa LIFE (2014-2018), cofinanciado por la UE, destinado a mejorar su población. Este programa busca hacer un seguimiento del visón europeo y la erradicación de la especie americana mediante técnicas de trampeo.

NO A MEJORAS EN EL PARQUE DE ARTAZA

La sesión de hoy ha concluido con el debate de una proposición no de norma de Podemos Bizkaia que venía a recoger una demanda de vecinos de Leioa que pasaron en verano de 2016 por la comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía del parlamento vizcaíno, con demandas de actuación para el parque de Artaza, de Leioa. El grupo morado ha presentado una iniciativa para que la Diputación se haga cargo de varias mejoras: completar el tramo de una valla para evitar que niños y perros salgan a la carretera; instalar más bancos y papeleras, y un urinario público; y arreglar el desagüe de una fuente.

La iniciativa, apoyado por todos los grupos de la oposición, ha sido rechazada por los representantes de PNV y PSE-EE. Según ambas formaciones, el parque de Artaza está en manos de tres instituciones –Gobierno vasco, Diputación y Ayuntamiento– las cuales gestionan una parte del recinto. La Diputación gasta anualmente “más de 100.000 euros” en su mantenimiento y algunas propuestas planteadas “ya están cubiertas”, como las referidas a las papeleras, los asientos o los baños públicos. Además, los técnicos “no ven que haya riesgo” en el parque para colocar una valla. La iniciativa ha sido desestimada por 7 votos a favor y 8 en contra.